

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroan babestutako etxebizitza baten alokairuaren prezioa 2015ekoa baino merkeagoa izango da, % 8 eta % 14 artean

*Laparra lehendakariordeak Eraikitzaile eta Sustatzaileen Elkartearekin eta sektoreko enpresa nagusiekin hitzarmen bat sinatu du gaur eguerdian familia nafarrek etxebizitza eskuratzeko aukera hobea izan dezaten*

Osteguna, 2016.eko ekainak 16

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak hitzarmen bat sinatu du gaur eguerdian Eraikitzaile eta Sustatzaileen Elkartearekin eta sektoreko zortzi enpresa nagusierekin familia nafarrek etxebizitza eskuratzeko aukera hobea izan dezaten; beste neurri batzuen artean, babestutako etxebizitza baten alokairuaren prezioa % 8,05 eta % 14,67 artean murriztea aipatu behar da, 2015arekin alderatuz.



Laparra lehendakariordea Nafarroako Gobernuko beste ordezkari batzuen eta alokairuko etxebizitza-sektoreko eragile nagusien alboan.

Laparra lehendakariordeak sektore horretako eragile nagusiekin lortutako akordioa azpimarratu du etxebizitza sozialeko proiektuen alde egiteko eta sustapen berriak sustatzeko, "alokairuko babestutako etxebizitzaren eskaera sozial garrantzitsuari" erantzungo diotenak. Eraikitzaile eta Sustatzaileen Elkarteko ordezkariak eta patronalekoak ere adostasun hori nabarmentzeko orduan bat etorri dira; haren bidez, etorkizunean proiektu berriak ahalbidetuko dira.

Nafarroako Jauregian izenpetutako hitzarmenak errentamenduko prezio-sistema berri bat ezartzen du urteko KPIren estatuko aldatetan oinarritutako eguneratze-formula batekin eta prezio ezberdineko bi gunekin, alokairuko etxebizitza-eskaeraren arabera.

Hala, babestutako etxebizitzaren errentamenduko kontratu berriei aplikatu beharreko errentaren hasierako gehieneko prezioa Iruñerrian 5,40 euro izango da etxebizitzaren m<sup>2</sup> erabilgarri bakoitzeko, 60 euro garaje-azalera guztirako eta 2 euro trasteleku eta gainerako eranskinen m<sup>2</sup> erabilgarri bakoitzeko. Nafarroako gainerako udalerrietan, alokairuaren gehieneko prezioa 5,10 euro izango da etxebizitzaren m<sup>2</sup> erabilgarri bakoitzeko, eta kopuru berari eusten zaio garaje eta trastelekuetan.

Prezioen jaitsiera horri (aipatutako % 8,05 eta % 14,67 artekoa),

beste % 3ko murrizketa bat gehitzen zaio honako honen ondorioz: OHZ (ondasun higiezin gainera) maizterrak diren pertsonen ezin zaie aplikatu, indarrean dagoen legeriaren arabera.

Hitzarmena honako hauek izenpetu dute: Nafarroako Eraikitzaile eta Sustatzaileen Elkarteak, Juan Las Navas ordezkari izanik; Vitello Norte S.L., Adania Patrimonio S.L., eta Adania Residencia S.L., M<sup>a</sup> Josefa Lizarraga ordezkari izanik; Inmobiliaria Osane S.L. eta Errotabidea S.L., Javier Marín ordezkari izanik; Apartamentos Tutelados Leyre S.L. eta Gestión Asistencial S.A., José Luis Osaba ordezkari izanik; eta Building Center S.A.U., Jaume Torrents ordezkari izanik.

Aipagarria da, gogoratu duen moduan, hitzarmenean aurreikusitako jarduerak lege-testu batean islatuko direla, proposatu egingo dena foru-lege gisa Nafarroako Parlamentuak onartu dezan, iradoki daitezkeen ekimen berriak alde batera utzi gabe.

### **Babesteko araubidea eta alokairua erraztea**

Alokairuko etxebizitzaren babes-araubideak 15 urte iraungo du tasatutako prezioaren etxebizitzetan, 10 urte adostutako prezioaren etxebizitzetan eta 8 urte erosteko aukera dagoen alokairuko adostutako prezioaren etxebizitzetan. Alokairuko babes ofizialeko etxebizitzaren kasuan, 15, 20 edo 30 urte iraungo du.

Gainera, errentamenduko BOE etxebizitza-parkea handitzeko, higiezin horien sustapenerako diru-laguntzak finkatuko dira, eta haiek handiagoak izango dira babes-araubideko etxebizitzaren aldi baterako lotura iraunkorragoa den artean.

Etxebizitza horien alokairurako sarbidea ere hobetu nahi da zenbait jarduera eginez, esaterako: hasiera batean aurreikusi gabeko sustapenetan gizarteratzeko alokairuko etxebizitzaren erreserba bat izatea; alokairuko etxebizitzaren % 6ko erreserba bat sortzea eskatzaileen erroldan bakarrik inskribatzen diren pertsonentzat; erroldarengatik puntuazioa kentzea etxebizitza horiek esleitzeko eta etxegabetutako pertsonen lehentasuna ematea; prozedura horretarako errenta-tarteak aldatzea, eta errentamenduko sustapen berrietan eraikin berean elkarrekin izatea, gazte-aloairuko programak, 60 urtetik gorako pertsonentzako edo desgaituentzako alokairuko apartamentuak, bai eta ohiko errentamendurako higiezinak ere.

### **Etxegabetzeak eta beste neurri batzuk ekiditea**

Sinatutako hitzarmenak beste jarduera batzuk aurreikusten ditu alokairuko babestutako etxebizitzaren etxegabetzeak ekiditeko, maizterrek jasotako informazio hobetzea beraien eraikineko gastu eta funtzionamenduaren gainean; alokatutako etxebizitza bat erosteko aukera gauzatzen laguntzea; eta babes-epaia amaituko den etxebizitzetako babes ofizialeko lotura luzatzea.

Azkenik, Nafarroako Etxebizitza Kontseilua sortuko da, aholku-emailea den organoa, eta bertan Foru Gobernuak sektoreko enpresa eta elkarte nagusiak gonbidatuko ditu alor horretako politika publikoen diseinuan eta berrikuspenean parte har dezaten.